

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa batek beste enpresa batzuekin egiten dituen aliantzak dira funtsezko elkarteak. Enpresek aliantzak egiten dituzte hainbat arrazoiengatik: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko edo baliabideak eskuratzeko. Baita ere, aliantza hauek, negozio-eredu jakin batekin funtzionatzen ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da.

Gure elkartearen kasuan, aliantzak egiten ditugu beste enpresa batzuekin, gure etekinak handitzeko eta nagusiki baliabideak eskuratzeko. Hala nola, gure ekintzak, hizketaldiak, barnetegiak... egiteko dirua gurekin aliantza duten enpresek eskaintzen digute. Horietako gehienak kirol arloan lan egiten dute, beraz, gure kausarekin familiartasuna dute.

Gure kolaborazio handiena Adidas markarekin da. Denok dakigunez, Adidas kirolan erabiltzen diren ondasunak ekoizten ditu, hau da, guztiz sartuta dago kirol profesionalaren munduan. Horrez gain, gizarte erantzunkizuna jorratzen duen enpresa bat da, beraz haientzat ere onuragarria da gurekin lan egitea publizitate ona ematen dielako eta gizartearentzat zerbait egiten dutelako.

Bestalde, ColaCao ere gurekin lan egiten du. Hau Espainiako enpresa zaharreneeko bat da eta betidanik gizarte hobetzeko hainbat ekintzetan parte hartu du. Horixe bera egin du gure elkartean. Berriz ere gizartearentzat ona den proiektu bat bermatu du eta Adidas bezala publizitate on bat lortu du trukean.

Gurekin ere lan egiten dute Kaiku eta Leche Asturiana. Hauek ez dute erlazio zuzena kirolarekin baina bai nutrizioarekin, beraz, zerikusia du kirolaren arlo konkretu batekin. Gure erakundea laguntzean, biak lortzen dute haien ondasuna edo produktua kirola eta osasunarekin lotzea.

Azkenik, hainbat enpresa lokalekin lan egiten dugu, hala nola, Michelin, Mercedes edo Hala Bedi. Hirurak gure hiriko enpresak dira, Gasteizko enpresak eta haien hiriko proiektu bat bultzatzea erabaki dute, izan ere, gure erakundearen xedea Gasteizen dago. Batetik, Mercedes eta Michelin gizarte erantzunkizuna dela eta erabaki zuten guri laguntza eskaintzea baina, Hala Bediren kasuan, askoz errazagoa izan zen. Izan ere, Hala Bedi irratia sortu zenetik proiektu lokal txikiak bultzatzen ditu eta hala egin du gurearekin haien irratia gure erakundea promosionatzen iragarkien bidez eta gu aldi berean haiei.

Esan dugun bezala, enpresa hauek guztiak borondatez erabaki zuten gure erakundea bultzatzea kirolarekin konpromesua dutelako edo haien enpreseentzat publizitatea lortzeko. Baliabide mota asko eskaintzen dizkigute enpresa hauek ez bakarrik ekonomikoak. Materiala, espazioak, publizitatea, laguntza soziala... Mota guztietako laguntza jasotzen dugu enpresa hauengatik.

Gure elkartean pentsatzen dugu aliantzak egitea beste enpresa batzuekin oso beharrezkoak direla, alde batetik, bata besteari laguntzen diogulako eta beste alde batetik, onuragarria delako bai etekinak lortzeko bai publizitatea lortzeko.

Asoziazio feministei dagokionez, hainbat erakundeekin lan egiten dugu. Hauek dira gurekin lan egiten duten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzak
- AMPEA
- AMAR kolektibo feministak
- Asamblea de mujeres de Álava
- Emakunde

Materiala eskaintzen diguten enpresak honako hauek dira:

- Unisport
- Casanovas textil

Unisport kirol material unisex eskaintzen digu eta casanovas textil materiala eskaintzen digu saltzen ditugun produktuak egiteko.